

Ikasleek egindako PROPOSAMENAK (04-05 ikasturtea)	Arrasateko Udalak hartutako neurriak (erabakiak eta egindako lanak)
<p>- Ubide naturalak ez dira errespetatzen. Ubidean, zuhaitzen ezarpena lagundu egin behar da eta baldintza egokiak jarri behar dira hori gerta dadin. Ubideraketa horien aldean egokiagoak dira harrien arteko zirrikitueta lurra dutenak, bertan, neurri batean, landaretza etor litekeelako eta horrekin batera konplexutasun biologikoa. Horretarako, zenbat eta etzanago izan lubeta, aberatsagoa izango da landaretza. Ekosistema hori (ibaia) berreskuratzeko neurri egokia ibai-ertzeko landaretza berreskuratzea izango litzateke. Horretarako zuhaitz ilara bat, behintzat, komeni da ubidearen ertz bakoitzean (espezieak bertakoak).</p>	<p>- Ibai ertzetako landaketak Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren eskumena dira, beraz, ibai ertzetan burutzen diren Udal ekintzak sasi eta landare inbaditzaileen garbiketa lanak besterik ez dira izaten.</p>
<p>- Erreka garbitu beharrean (estetikoa) errekuperatu egin behar da.</p>	<p>- Saiatzen gara berezko landareria geratu dadin landare inbaditzaileen (Reynutria japonica eta Budleja davidii) hazkundera saihesten. - Hala ere aurreko puntuan bezala Udalak ez dauka honetan eskumenik.</p>
<p>- Ibai ertzak ondo garbitu (hainbat zonaldetako zaborrak kendu).</p>	<p>- Urtean bitan (lehen behin bakarrik egiten zen) garbitzen dira: Nafarroa etorbidea, Erdialdea, Musakoa ingurua eta Kataide ingurua. Sasi garbiketarako egiten dira - Urtean behin: Garagartza (Gazeaga erreka). - Ibaian barruan eta ertzetan dauden hondakinak jasotzen dira urtean bitan eta zabortegira eramaten dira hondakinak.</p>
<p>- Ibai ertzak garbitu beharko ziren maiztasun handiagoarekin.</p>	<p>- Urtero urtero ibai zati berri bat garbitzen da. Aurten Kataide izan da.</p>
<p>- Zer nolako neurriak hartzen ari diren jakiteko informazio kanpainak antolatu beharko ziren.</p>	<p>- Txip 21 aldizkarian eta Arrasateko Udal boletinean egindako ekintzen berri ematen da.</p>
<p>- Ibaia garbitzeko eguna antolatu.</p>	<p>- Aurreikusten da aurtengo ASTE BERDEAn ibaia garbitzeko kanpaina egitea eskola eta beste elkarte batzuekin.</p>

<p>- Egoera txarrean dauden elementuak garbitu edo/eta konpondu (Musakolatik Eroskiruntz joaterakoan dagoen egurrezko zubiaren inguruak garbitu, iturriak, garbitokiak,...)</p>	<p>- Eroski inguruko erreka zatia orain obrak direla eta aldaketak egongo dira erreka ertzetan, beraz obra hauek bukatzean aurreikusten da bertan garbiketa lanak egingo direla urtero.</p> <p>- Mojategiko lanak bukatzen direnean asko hobetuko dira inguru guztiak</p> <p>- Eroski inguru guztietan sare bat jarri zen erreka aldean eta bertan gelditzen dira zikinak, gero garbitu egiten dituzte.</p>
<p>- Txartel informatzaileak jarri jendeak ondo erabili eta ondo informatuta egoteko (ura edangarria den, txakurrei iturrietan edaten ez uzteko,..).</p>	<p>- Udaleko iturri denak dira edangarriak, Urkuluko urarekin hornitzen dira eta.</p> <p>- Lurzoru pribatuetan, berriz, oso nekeza izaten da aktuzioak egitea eta iturriak kontrolatzea, hauek ez daude kontrolatuta.</p>
<p>- Herriko iturriak aztertu ea nahikoak diren, ea ur jariora luzeegia duten, ea ondo erabiltzen diren,...</p>	<p>- Iturriak herriko puntu desberdinetan kokatzen dira. Kontuan izaten dira urbanizazio berriak, jolas parkeak, umeak egoten diren gunek,...</p> <p>- Iturriak jartzen direnean, denak izaten dira tenporizagailuarekin, ur jariora kontrolatzeko.</p> <p>- Sortzen diren arazoak gehienetan izaten dira harriak, makilak eta beste hainbat material sartzen direla ur tutuetan, desaguetan,....</p>
<p>- Seberoko komun publikoei dagokienean, agian, aurrerantzean hain “modernoak” ez eraiki eta mekanismo automatizatuen ordez garbitzaile zerbitzu bat kontratatzea.</p>	<p>- Seberoko komuna astero garbitu egiten da, nahiz eta berak ere mekanismo automatiko bat eduki.</p> <p>- Komunak garbitzeko erabiltzen duen ur kantitatea egokia dela suposatzen da, ez duela urrik alferrik gastatzen.</p>
<p>- Herriarentzat informazio, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak antolatu.</p>	<p>- Kanpainak urtean zehar egiten dira, baina orokorrak izaten dira, ingurumenari buruz (liburuxka informatzaileak buzoneatu egiten dira).</p> <p>- 2005ean uraren autobusa Seber Altube Plazan egon zen, maiatzak 30-31, ekainak 1 eta urriak 10 eta 11an.</p>
<p>- Uraren kontsumoa aztertu; eta uraren fakturan “plus” bat ordaintzea.</p>	<p>- ura modu honetan kobratzen da: kontadorearen kalibrearen arabera 16 euro eta kontsumoa 0,41 euro metro kubiko bakoitzeko 50m kubikora arte eta hortik aurrera 0,81euro metro kubiko bakoitzeko. Hau jasota dago udal ordenantza batean (Arrasateko web orrian ikusgai).</p> <p>- Behin baino gehiagotan begiratu da sistema egokia den edo ez kontsumoa ahalik eta gutxiena izateko, eta momentuz hau da egokiena</p>

	<p>iruditzen zaiena kontuhartzaitza zerbitzuan; sistema honekin kontsumo gehiago daukanak gehiago ordaintzen baitu eta horrela jendeak alferrik gastatzen ez duela uste da.</p>
<p>- Lorategi eta zona berdeekin azterketa bat egin eta ur eskari urriagoa duten landare espezieak erabili. Itzal gehiago sortuko duten zuhaixka gehiago jarri, horrela ur gutxiago galduko da ebaporazioz. Belazearen ordez, lurzorua tapizatuko duten bestelako espezieak erabili, ur gutxiago behar duten “alfombra berdeak”osatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Urtero gune berriak informatizatzen dira ureztagailuak kontrolatzeko. - Gune batzuetan sareko urarekin ureztatu beharrean iturburuko urarekin egiten da. - Itzala ere ez da oso egokia ikusten lorategietan, ura ez baita azpira heltzen eta ez delako belarrrik hazten. - Ur gutxi edo urik heltzen ez den tokietan ez da loreak jartzen. - Ureztatzeko aukera dagoen tokietan batzuetan loreak jartzen dira eta besteetan belarra edo beste landare batzuk bakarrik. - Beste berdeguneak ez dira ureztatzen, uda aldean horitu egiten dira, baina hori prozesu natural bat da eta belarra udazken-neguan berriz berdetu eta irteten da.